

# 2007KO URRIAREN 31KO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

**DEIALDIA: LEHENA**  
**HASIERA ORDUA: ILUNTZEKO 7:40AK,**  
**AMAIERA ORDUA: ILUNTZEKO 21:10RAK**

**BERTARATUAK: Jesús Maria Fullaondo, Alkatea, Maria Jesús Azkúe, Pedro Arrizabalga, Leixuri Arrizabalaga, Jose Maria Markaida, Maite Elordui, Deitze Erkoreka, Iñaki Aginaga eta Gotzon Arrieta.**

Udaletxeko Batzar aretoan, osoko bilkura bildu da, ez ohiko osoko bilkuran, aipatutako zinegotziak bertaratu dira. Bilkura zabaldua, Idazkariaren aldetik bilkura ahal izateko behar den gutxieneko kopurua izatea ikusi ondoren, osoko bilkurak grabatuko direla jakinarazten da.

Ondoren, gai zerrendan agertutako gaiei buruz hitz egin dute:

## **1. Ordenantza Fiskalak.**

Gai zerrendarekin batera banatutako informazioa aintzat hartuta, ordenantza fiskalei buruz hitz egin dute.

Ohiko osoko bilkura proposatutakoa zera da:

“2008ko ekitaldirako Udal Tasa eta Zergen tarifak 2006. urteko KPIa aplikauta eguneratzea proponidu da, hau da, % 2,7 aplikauta.

Beste alde batetik, ikuspegi tekniko eta juridikoari jagokonez bakar-bakarrik, honako ordenantza honek aldatzea proponidu gura dogu:

### **1.- Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskaritzearen ganeko Zerga Ordenantza Nagusia.**

2002. urtekoa indarbakotu eta Zergen Foru Arau Orokor barriari eta Bilketa Araudi barriari egokitutako beste bat emon gura da ontzat.

### **2.- Uri-lurren Balio Gehikuntzearen ganeko Zergea arautzen dauan Zerga Ordenantza.**

Proposamen honen helburua Ordenantzea Zergen arloko neurriak arautzeko bagilaren 23ko 7/2005 Foru Arauak aldatu eban 8/1989 Foru Arauaren bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoari egokitzea da. Izan be, aukerea emoten dau lurraren gitxieneko balioa zehazteko arau bidez ezarritako arau teknikoak aplikauta eratorritakoa erabilteko lurraren benetako balio lez.

Holan idaztea proponidu da:

1.- Zerga honen zerga-oinarria zehazteko, lurzoruari egotzi leikiozan gitxieneko balioak aplikauko dira, sortzapenaren momentuan arauz ezarrita dagozanaren arabera. Lurzoruari eta eraikuntzari egotzi leikien gitxieneko balioa banakatu barik egotekotan, % 60ko murrizketeagaz aplikauko da.

Interesdunek lurzoruaren ganean autortu daben balioa, zerga hau dala eta, puntu honen aurreko paragrafoan ezarrirako araua apliketearen ondoriozko emoitzea baino handiagoa izan ezker, lurzoruaren autortutako balio hori bera izango da zerga-oinarria.

2.- Zergea sortzen dan momentuan eskualdatu gura dan ondasunak egotzi leikion gitxieneko balioa ezarri barik eukitekotan, puntu honetan ezarrirakoari segiduko jako zerga-oinarria zehazteko:

Lurren eskualdaketetarako, lurren balioa, momentu horretan Ondasun Higiezinaren ganeko Zergearen ondoretarako ezarrira daukana izango da.

Lur-zatiak eraikinen bat euki ezker, Ondasun Higiezinaren ganeko Zergearen ondoretarako ezarrira daukan katastroko balioa erabiliko da zerga honen likidazinarako oinarri lez, % 60ko murrizketeagaz, apirilaren 10eko 4/1997 Foru Arauan azaldutakoaren arabera. Modu berean, lur-zatiak eraikinen bat euki ezker eta bere katastroko balioa ez badago Ondasun Higiezinaren ganeko Zergearen ondoretarako ezarrira, lur-zati edo orubearen katastroko balioa, lur-zati osoan jagokon partaidetza portzentajea edo, holan bajagoko, finkak higiezinaren eta bere elementu komunaren balioan esleituta daukan jaubetza kuotea aplikauko da

Ondasun Higiezinaren ganeko Zergearen Katastroan eskuratutako datuen bitartez ezin izango balitz eskualdatuko dan lur-zatiaren katastroko balioa identifikatu edo balio hori ezarrira ez badago, Uri-lurren Balio Gehikuntzearen ganeko Zergearen balio-indizeen taularen emoitzezko balioak aplikauko dira”.

Era berean, ANV eta EAkoek proposamen batzuk egiten dituzte:

“1.- Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergari dagokionez, **traktoreei** dagokien **d atalean tasa igoera %1ekoa** izatea proposatzen dugu. Gure ustez, baserria sustatzeko modua delako eta eremu horrek iraun dezan udalak bere esku dagoen laguntza guztia eman behar duelako.

2.- Bestetik, 7. epigrafeari dagokionez, ondo ikusten dugu jarritako tasa, sortzen den kostuagatik (ura, argia, ...). Baina **jabedun pribatuek probalekuak eskatzen dutenean kudeaketa udalaren eta egun, horretaz arduratzen den komisiñoaren esku geratzea proposatzen dugu**. Hau da, Gatikako udalak probalekuaren eskaera jasotzen duenean argi uztea komisiñoako kideak izango direla beti probalekuaz arduratuko direnak eta inoiz ez dela geratuko pribatuen esku. Bestetik, udaletik udalera egiten direnean eskariak ere aipatutako taldea izatea kudeatzailea proposatzen dugu. Egun horrela egiten den arren, ordenantzan horren konstantzia gera dadila nahiko genuke.

3.- Obretako tramitazioari dagokionez, **baserriak konpontzeko orduan %90eko bonifikazioa ematea proposatzen dugu**. Horretarako, baldintza batzuk bete beharko direlarik. Bonifikazioa jaso ahal izateko, baserrian egingo den obra horreek **eraikinaren betiko itxura mantendu beharko dute**. Inolaz ere ez du bonifikaziorik jasoko baserria guztiz itxuraldatzen duen obrak. Adibidez, baserria behera bota eta aurrekoarekin inolako zerikusirik ez duen obra batek. Berriz ere, argi esan nahi dugu; baserriaren betiko itxura errespetatuz egiten den obrak %90eko bonifikazioa jasotzea proposatzen dugu.

Gure ustez, aurreko puntuan esan dugun moduan, baserriak denboran irautea ahalbidetuko duela uste dugu eta gure ondare diren baserriak mantentzeko ahalegina egin behar duela udalak eta erraztasunak eman behar dituela uste dugu.

4.- Atal berdinean ere, **energia berriztagarrien aldeko apustua egiten dutenei bonifikazioak ematea proposatzen dugu**. Hau da, etxe berria egiteko orduan energia berriztagarria jartzeko asmoa dutenei %90eko bonifikazioa egitea proposatzen dugu. Baita, egungo energia berriztagarri bategatik aldatzeko baimena eskatzen duten haiei ere.

5.- Bestalde, aurreko atalean ere **mugikortasun arazoak** direla-eta; obrak egiteko lizentziak eskatzen dituzten haiei **%90eko bonifikazioa** egitea proposatzen dugu.

Gure ustez, Gatikako udala bezalako instituzio publiko batek mota honetako energia garbiak sustatu behar dituela pentsatzen dugu eta horretarako herritarrei aukera horren alde egiteko bonifikazioa proposatzea derrigorrezkotzat jotzen ditugu”.

Aho batez onartu dira proposamen guztiak. Dena den, bonifikazioei dagokienez ebatzi dute definizioak egin eta baldintzak jarri beharra dagoela.

Udalaren Osoko Bilkura, Ez Ohiko honen Deialdian, eguneko aztergaien artean, bigarren ata lean EAE-ANVko zinegotzi-taldekoek lehengo Osoko Bilkuraran egidako eskabidea gaurko bilkuran esa n behar deja kontutan harturik, horretarako nire ERANTZUNA dakart idazki honen bidez:

1.- EAE-ANVeko zinegotzien eskabide horren lehengo zatiaren aurrean: horretan zera diño: Udalaren kultur ajendan agertzen ziren ikastaro pare bat elkarte pribatuen esku gerat~ direla, horien artean sabel dantza eta euskal dantza ikastaroa. Eta ez dabeja ulertzen zergaitik instituzio publiko batek, hau da, Ud al honek, elkarte prib~tu baten aldeko propaganda egin behar duen, ikusirik Gatican ba dagozela beste kultur elkarte batzuk, adibidez, *Artatxori* moto klub, *Guztionzat* hirugarren adinekoen elkarte, *Gogoz* euskara taldea... Honetan, EAE-ANVkoek ez dabe aitutzen *Intxurtxu* dantza talde ezaguna.

Guzti horren aurka, nire aldetik zera erantzuten deutset: Gatikako Udalak, legearen arabera (Errejimen Lokalaren Estatuaren Legeak imiñita) ba dauka eskumena (konpetentzia) kultur ekintzak prestatzeko, gura badau, eta bere eskutik edo beste elkarte baten bidez. Baina alderantzik, Udalak ez dauka obligaziñorik kultur ekintza horjek jestio publikoaren bidez bakarrik antolatzeko. Udalak ez dauko obligaziñorik kultur ekintzok funtzionarien bidez emoteko.

*(El Ayuntamiento tiene competencia para organizar actividades culturales, segun la Ley estatal 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local, si lo quiere, y directamente por sí mismo o indirectamente por medio de entidades públicas o por particulares. Pero la ley no obliga al Ayuntamiento a que las preste únicamente mediante gestión pública, mediante funcionarios).*

Badagozela beste elkarte kulturak Gatikako herrian ere: hori badakigu danok, baina eurok aitatu dabezan horiek, hau da, *Artatxori* moto klubak, *Gogoz* euskara taldeak, etab, Udalaren subentziñoak hartzen dabez urtero. Hona hemen ekarri dodaz Udalbatza honen idazkari andrearen zertifikaduak (ziurtagiriak) , zelan hartzen dabezana erakusteko:

## **2. ANKoek ohiko osoko bilkuran egindako eskabidea.**

Maria Jesús Azkuek, ANVkoek ohiko osoko bilkuran esandakoa kontuan hartuta erantzuten du eta hone hemen esan duena:

- 1) *Arta Txori Moto Klubak* subentziñoak (Lehenengo 10 dokumentua).
  - 2007 urtean: 3.000 €
  - 2006 urtean: 2.000 €

2) *Gatikako Gogoz Euskera taldea* subentziñoak (Bigarren dokumentua).

-2006urtean:

~ Aretoko dantzak (*bailes de salón*) egiteko: 192 €

~ Olentzero ekintzarako: 200 €

-Olentzero ~kintzarako (ostera bere): 440 €

-2007 urtean: 380,- €

Ba dagoz beste subentziño batzuk ere, eta ez diru gitxikoak, esate baterako Jaien Batzordeari emoten dakezakak, geroago aitaturko doguzanak.

Baiña EAE-ANVko zinegotziek gure aurka dakarrezan adibideetan, beste kultur ekintza horiek, sabel dantza esate baterako, ez dabe subentziñorik hartu Udalaren aldetik, ezta eskatu ere ez, gero esango dogunez. Bakarrik lokala itzi dake eta horregaitik ez dauke gasturik Udalarentzat.

1.2.- Geroago EAE-ANVko zinegotzien eskabidean beste zera diño: Udalaren kultur zinegotziaren esanetan, kultur elkarte pribatu hauek eurek egin zuten ikastaroa egiteko proposamena, Udalak begi onez ikusi eta udal aretoak erabiltzeko aukera eman ziela. Baita ere diño, EAE-ANVko zinegotzien euren iturrien arabera, ordea, ez dagoela udaletxeko sarrera errejistroan ez ta kultur etxean ere proposamen hori jasotzen duen paperik. Eta beraz, kultur zinegotzia naizen niri, gezurretan ibili naizela leporatzen dauste.

Guztí horren aurka, nirealdetik zera erantzuten deutset: Udalbatzak, kultur ekintza edo ikastaroak egiteko, badauko baimena emoteko eskumena, ekintza administratiboan bidez. (*El Ayuntamiento tiene competencia para conceder el uso de sus locales, mediante actos administrativos que están previstos en la ley*). Egia da kultur elkarte pribatu hauek eurek egin ebela ikastaroa egiteko proposamena. Eta legearen arabera, Udalaren, edozein Udaleren ekintza administratiboak, ez bakarrik idatziz, baita ere ahozkoak izan daitezke, momentu batean, pr~,zedura eta akordua onda gorde izan badabez.

*(El artículo 55 de la Ley estatal 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común, contempla que los actos administrativos -los del Ayuntamiento- se produzcan no solamente por escrito, que es lo que regularmente establece, sino también de otra forma más adecuada a su expresión y constancia. En su apartado 2, para los casos en que los actos administrativos se dicten de palabra, prevé que el funcionario que los recibe -en este caso, la Secretaria u otro funcionario- los documente después por escrito, y esa lista la deberá autorizar quien los dictó).*

Inportanteena kasu honetan, zera da: kultur ekintza horiek egiteko tokia ia eskatu utsoen Udalari ala ez eta ia emoteko akordioa bere moduz egon zen ala ez. Egiaztatu leike beste modu batzuen bidez, ez bakarrik idatziz. Ez daga ezer eskutatekorik, akordioa Udalaren ohizko Kultur batzordean aztertu,

EAE-ANVkoen eskabidean aitatzen diren 520 € soldata astean, ez da asmakeria galanta eta hutsa bakarrik, eurok autortzen dabe ez dakiela onda (bai txarto). Sabel dantza ikastaro horren ikasleak eurek ezagutzen dabe gauzak zelan egiten dira eta eurok etorri gura dabe ikasten. Gatikako Udalbatzari ez deitso dirurik eskatzen, eta alderantziz, kultur ekintza bat emoten dau herritarrentzako, bere kabuz. Hori bai da txalogarria.

1.4.- Geroago EAE-ANVeko zinegotzien eskabidean beste zera diñoe: Non daga negozio eta herritarrentzako interesgarria izan daiteken kultur edo kirol arloko ekintza baten aurreraketa? Baita diñoe: Nota traga daiteke kultur zinegotziak kultura elkarte horrek proposamen bat egin duela? Non daga idatzita? Zein kontromisu sinatu ditu udalak elkarte horrekin? Zergatik horrekin bat eta zergatik ez beste batzuei galdetu?

Guzti horren aurka. nire aldetik zera erantzuten deitset: Hori dinot nik, non daga muga? Planteamendu horrek ez dauko oinarrik, horretan negozioz ez dagoelako. BAKBEK elkartearen proposamena bai gertatu zen, Udalaren teknikoei kontsulta egin yaken eta akordioa onartu ebenak, horiek badakie.

Hori dinot nik, barriro ere. Non daga muga? Non daga muga egiaren eta jakin bako asmakeriaren artean? Beste batzuen kasua aitatzen da. Zeintzuk beste horiek? Kasurako, badago adibide bat, Gatikako hainbeste herritarren jakiteko gose galantagoa sortzen dakena: herriko Jai Batzordea.

BAKBEK kultur elkarteak (ez dau subentziñorik hartzen eta Udalbatzak ez dauko zertan sartzerik haren kontuak aztertzeko, gauzak legearen arabera egin ezeko, eta legeak borondate onaren alde jokatzen dau printzipioz.

Gatikako Jai Batzordea, ostera, bai subentziño galantak hartu ditu Udalbatzaren aldetik, eta horretaz gaitik, legeak aginduren dauanez, bere kontuen argibidea emoten behartuta daga ha.

Hona hemen ekarri dodaz Udalbatza honen idazkari andrearen zertifikaduak (ziurtagiriak), Jai Batzordeak zelan hartzen dabezana erakusteko:

(Hirugarren dokumentua)

1) Diru subentziñoak:

-2005 urtean: 14.979,92 €

-2006 urtean: 44.860 €

-2007 urtean: 42.000 €

2) Baita ere, ezelango diru sarreraren justifikaziñorik ez deitso eman

eztabaidatu eta onartu zen, bertan zinegotziak eta funtzionarioa ere egoazala. Gatikako Udalbatza honen beteko moduan eta aurreko urteetan erabili izan dan ohituraz, Kultur batzordeetan Alkate jauna ere tarteko daga. Bertan aztertzen eta onartzen den proposamenak, Alkatea dan goren agitariak bat egiten dau akordioarekin, bereala ekintza administratiboaren indarra hartzen dau, eta kitto.

Gatikako Udalbatza honetan, orain baino lehenagoko alkatea, eta hori baino lehenagokoa ere, holan ibili dira beti, kultur ekintzak egiteko toki publikoak elkarte pribatuari izteko baimena emoterakoan. Uste dot nik, hareek borondate onarekin egin ebela, eta orain arte inork ez dau gauza txarrik aitatu. Beraz, EAE-ANVkoek uste badabe oraingoan txarto egin dais (eta ez dot uste holan danik, lehen esan dodan arrazoigaitik), orduan aurrekoek ere bardin antzera txarto egin eben. Eta ordukoak onda egin baeben, oraingoak ere onda.

Neuk gomutauten dodan lez, eta uste dot Udalbatzakide guztiok ere bat etorriko direan nago, aurtengo, 2007eko Urrilaren 25eko azken Osoko Bilkuran -egun horretan izango dala, a-tza- hauxe esan eben argi: ez dirala sartuko, ez zirikatuko, Udalaren tokiak izteko baimenen arazoan, ze herrian ba dagozela beste zesiño batzuk ere. Honageroago alderantziz egin.

1.3.- Geroago EAE-ANVeko zinegotzien eskabidean beste zera diñoe: Horrez gain, teoriarik dantza ikastaroa emateko proposamena egin zuen BAKBEK, Butroi elkarte kulturalaren estatutuak dituela, Eusko Jaurlaritzaren erroldatik atara la. Eta bertan diñoe, Maria Jesus Azkue, nire, elkartearik lehendakaria naizela, herriko kultur zinegotzia nire ere; nire familiarik beste batzuk direla elkartearik arduradunak, nire alaba Larraitz tartean ere.

Ondoren, zera diñoe: sabel dantza ikastaroa ematen duen pertsona (Udalak itzitako toki batean) elkartearik idazkaria eta nire alaba bera da: Larraitz. Baita diñoe, ikastaroak emateagaitik dirua, eskura jasotzen du, hau da, diru baltza, 16 ikasle dituela eta EAE-ANVkoak ausartzen dira kalkulu honen susmoa egiten, horrela 520 ~ so1data ateratzen duela astean egun batez.

Guzti horren aurka. nire aldetik zera erantzuten deutset: BAKBEK Butroi elkarte kulturala, legeztutako elkarte bat da, eta haren ekintzak legearen argira egiten dira. Ez dauko misteriorik, urtero agertzen da laguntza egiten Butroiko Gazteluaren Erdi Haroko jaia milaka pertsonaren aurrean posible egiteko. Nire alaba Larraitzek ez dauko ezelango negozioarik sabel dantzaren ikastaroekin. Alderantziz, BAKBEK Butroi elkarte kulturalak jan egiten du bere estatutoen arabera, lukrorik irabazteko intentzino bako elkarte data. Atera leiteken dirua, estatutuetan dakarrezan elburuak ateratzen dira eta kitto.

*(Mi hija Larraitz no tiene ningún negocio. La asociación cultural BAKBEK trabaja conforme a sus estatutos, sin ánimo de lucro, y los ingresos que pueda obtener se destinan exclusivamente a sus fines sociales).*

Gatikar guztiok badakigu, baita jaietara datozen kanpoko beste askok ere, Jai Batzordeak Txosna antolatzen dau eta diru mardoa ataratzen dau hortik. Udalbatzak ez dau ezagutzen tutik ere ez.

Zelan atrebidu leiteke EAE-ANVkoen eskabide horretan, besteen begietako sasi-adartxuen bija ibiltzen, eta beste aldera enbor handiagoak ikusi edo begiratu barik? Ba, antza, bai ausartu dira.

Jaien Batzorde horretan, tarteko dira EAE-ANVkoen eskabide hori aurkeztu diren hiru zinegotziok, eurok. Horrexegaitik, euren eskabidea eusten deutoen era barean, euroi geure aldetik sasoi da eskatzeko, mesedez, Jaien Batzorde hori bertan bera itzi d:agiela, Udalbatza honetan dagozan bitartean.

*(Los tres concejales de EAE-ANV son a su vez miembros de la Comisión de Fiestas que, como hemos visto, todavía no ha entregado ninguna justificación de sus ingresos a este Ayuntamiento, a pesar de las elevadas subvenciones que ha venido recibiendo. Es hora de rogar/es a ellos, por favor, que, si quieren ser coherentes con ese escrito que presentaron y si quieren seguir manteniéndolo, que por favor abandonen esa Comisión de Fiestas).*

2.- Geroago EAE-ANVeKo zinegotzien eskabídearen bigarren zatian zera diño: María Jesus Azkue kultur zinegotziaren negozioak ez ei díra hemen bukatzen, ez. Ezagutu dabenez, María Jesusen etxean beste kultur elkarte bat ere izena emanda du: hau da, LIUKU elkarte deritzonaren lehendakaria bere alaba Larraitz da. Bere familiako beste batzuk ere kargudun dira, eta diruzain lanetan, Maria del Carmen Requejo Garcia andre sestaoarra da. Kasualitatez, Gatikako Udalak azteazkenetan pintura ikastaroa eskaintzen du kultur alkarte baten bitartez, CEZA y *Imaginación y creatividad* elkarte; eta hori kudeatzen duen andrea, ha da. Bai, LIUKU kultur elkartearen diruzaina ere da.

Baita ere, EAE-ANVkoE~k diño: Maria Jesusek, neuk, ez zuen eskatu bestelako aurrekonturik ikastaro hori CEZA y elkarteari emateko.

Baita ere diño: hori ez da dena, Maria Jesusek CEZA y elkartearentzat aseguruia ere eskatu zuen, baina Intxurtxu dantza taldearen izenean hain zuzen ere. Zelan erabili behar du herriaren aurrean errespetua irabazita daukan dantza talde horren izena? itaunduten dabe. Ea zelan azaldu dezake kultur zinegotziak, EAEkoek ikusten daben kointzidentiza mordo hau? itaundu ere.

Guzti horren aurka. nire aldetik zera erantzuten de!Itse!: CEZA y elkarateak ez dauko zerikusirik Gatikako herriarekin. Ez dauko zerikusirik LIUKU elkaratearekin ere. Baliteke pertsona bat, hau da, Maria del Carmen Requejo Garcia andrea elkarate bietan egon badagoenik, baina horrek berez ez du ez alde ez kontra, ezer frogatzen ere. Inditzio edo antza bakar batek ez

dauko indar nahikorik, ez da onartzen inori ezer ere leporatzeko orduan. CEZA y elkarte ez da enpresa bat, ez da merkatitza-elkarte, kultur elkarte hutsa baino, eta eskubide osoa dauko pintura ikastaroak emateko, bai Gatican, bai Sestaon edota berak gura dauan tokian.

LIUKU elkarte, munduko beste herriei laguntzeko elkarte da, Kooperaziño eta Garapenarako (*Asociación LIUKU para Cooperación y Desarrollo*), bere elburuak benefikoak dira eta momentu honetan Etioipian egitasmoak lantzen ari da. Hasiera batean, gure artean harreman profesionalak geunkazan pertsona talde bat"ean sortu ginen, lehen Eleizak deitzen eutson ehunekoa (*diezmo*) dirulaguntia batzeko asmoz eta atzerrian munduan zehar behartsuen alde emoteko, gara,penerako egitasmoekin.

Lagun asko mirestu dira geroago LIUKU elkarte horreten darabilguna ezagutu dabenean orduan, eta zorionak emon ere, guztiz txalogarria dalakoan. Baina nire ustez, nik ez dot beharrik, zeintzuk dira nire erlijiozko sinismenak eta nire ideoloji ametsak inori ere : azaltzeko. Neuk egin gura dodazan gauza onak, nire barrurako gordetzeko eskubidea da. Hala ere, EAE-ANVko zinegotziek nire bizitza pribatuan murgilduz beste gauza bat oker uste izan badabe, tamalgarria da, benetan. Baina ez dauke arrazoirik.

Hona hemen ekarri dodaz Udalbatza honen idazkari andrearen zertifikaduak (ziurtagiriak), zelan BAK-KEK elkarte kulturala eta LIUKU parael desarrollo Socio-Cultural elkarteak Gaticako Udalbatzari ezelako subenziñorik eskatu ez dabena erakusteko: (Laugarren 40 dokumentua)

Ostera ere CEZA y kultur elkarteari pintura ikastaroa zelan emon izan dakonaren arazora, zera egiaztatu behar dot: CEZAYkoek bai aurkeztu eben proiektu bat pintura ikastarorako, eta beste elkarte batzuei eskatu dakon. Danen artean aukeratzeko prozedurari jarraitu dakon. Azkenean, CEZAYri emon dakon, bera zan bentaja gehien ekartzen zituela ikusi genuelako.

Hortik aurrera, Gaticako alkate jaunak onda imini dauan prozedurari bidea eginez, merkataritza-enpresa ez diran elkarte kulturei, Gaticako Udalarekin kontratua egiteko, baldintza bi hauen eskatzen dake: 1) aseguru bat ekarri (gertatu leitekezan baez:padako kalteei erantzutearren), 2) kontratatzeko nortasun juridikoa eukitea. Hori guztia oso normaJa eta egokia da.

CEZAYrako aseguru hori topateko, Mungialdean, ez ei da izan orain arte prezedente haundirik, eta AXA aseguruaren bulego bateri planteatu neutson. Eurok konpondu eben arazoa. Beharbada, Butroiko Gazteluko Erdi Haroko Azokan Gaticako *Intxurlxu* dantza taldea esperientzia dauko eta horrek ba eukan aseguru bat haren alItzekoa, bera izan leiteke prezedente egokia, eta asmo on eta huts horrekin AXAren bulegoek eskatu eutsen beren zentralari

haren antzeko beste eskari bat CEZA Yrako. Hori baino ez da, eta ez daga mamu arrarorik, ez interferentziarik. Horren traga moduan, hona hemen dakart AXAkoek euren zentralari egin eutsoen aseguru-proposamenaren eskaera, totokipia moduan, Bostgarren (5º) dokumentu gisa.

3.- Geroago EAE-ANVeko zinegotzien eskabidearen hirugarren zatian zera diñoe: badirela beste kontu pare bat harri dituen. Batetik *Trapu zarrak* enpresa hartu du Udalak ikastaroak emateko, baina kontratua sinatu beharrean dekretu bidez egin du

Horren aurka, nire aldetik zera entzuten deutset: *Trapu zarrak* enpresari enkargua emoteko erabakia, alkate jaunarena izan da, eta ez nirea, nik ez daukadalako eskumenik kultur zinegotzi soila naizen aldetik. Baina bai enkargua emoteko proposamena, bai Kultur batzordean aztertu zen eta onda ikusi eta gero, bai onartu zen. Horrela egin dira beste arazo guztiak ere, gaur idazki honetan azaldu dodazan guztiak ere.

Horren aurka, nire aldetik zera erantzuten deutset: Egia da kargu guztiak herriaren zerbitzura zuzendu behar

*Trapu Zarrak* enpresari enkargua emoteko, ekintza administratibo horren eskumena Alkatearena da. Nahiko deukogu, aurretik Kultur Batzordearen proposamena egon da, oneritzia, eta horregatik ez da arbitrarioa izan. Alkate jaunak holan emon badeutso, indarra ekintza administratibo horri, uste dot onda eta modu egokian egin dela, eta kitto.

direla eta niretzako ez dauko lebarik neure kargua Gatikako herriaren eskuetan imintea. Baina, salakuntza

4.- Geroago EAE-ANVeko zinegotzien eskabidearen laugarren zatian zera diñoe: Udalgelen banaketa ez ei dela egokia.

horien oker eta guzurkierien aurrean, onda pentsatuta, ez bakarrik ez nabela konbentzidu arrazoia daukenik,

Horren aurka, nire aldetik zera erantzuten deutset: Horretan diñoena ez da egia, eta EAE-ANVeko zinegotzien eritzi partikularra baino ez da, Udal osoa bat ez datorrela. Enpresa horren kargudunak bisita egin zuen tokian eta hori degokitu eta margoztu zen.

baita ez daukela nahiko indar ba neuk hartu neban konpromisoa bertan bera apurtzeko, Gatikako herriarekin

5.- Bukatzeko EAE-ANVeko zinegotzien eskabidean nire dimisiñoa eskatzen dabe, kultur zinegotzia naizenez bertan behera kargua izteko.

auteskudeetara neure burua aurkeztu nebanean”

Maria Jesús Azkuek hitz egin ondoren, Jose Maria Markaidak esan du gura duela alkateren iritzia jakin nahi. Jesús Maria Fullaondok esan du legalki gauzak ondo eginda daudela, eta irakasleak aukeratzeko lana Kultura arloko zinegotziaren betebeharra dela.

Sabel dantzari dagokionez Jose Maria Markaidak esan du pertsona pribatuak lokal publikoan ematen duela, idatzita ezer egon barik.

Jesús Maria Fullaondok esan du lehen ere horrela egiten zela. Iñaki Aginagak onartu du egin ohi zela.

Jose Maria Markaidak galdetu du zertan erabilitzen den Sabel dantza ikastarori esker lotzen den dirua. Jesús Maria Fullaondok erantzun du udalaren betebeharra ez dela hori ikertzeko.

Deitze Erkorekak esan du badakitela legalki ondo eginda daudela, baina jakin gura du zergatik ez dira guztietarako irizpide guztiak jarraitu. Azpimarratu du Maria Jesus Azkuek erabili duela bere kargua kontratuak emateko.

Jai batzordeari dagokionez, Deitze Erkorekak esan du beharrezkoa dela herritar guztientzat. Gainera, esan du dirua lortu beharrean gasolina dela telefonoa dela, galtzen dutela. Eskatu du Maria Jesús Azkuek jai batzordean parte hartzen duten zinegotzien dimisoaren eskaera erretiratzeko. Gainera esan du jasotzen duen baino diru gehiago gastatzen dela. Halaber, Jesús Mariarekin erabaki zuten abenduan justifikatzea.

Deitze Erkorekak galdetu du zergaitik ez den ematen Patchwork ikastaroa, irakasleak dirulaguntza jaso behar duen arren. Leixuri Arrizabalagak erantzun du ez zituela baldintzak bete. Deitze Erkorekak gogoratu du Pintura ikastaroko segurua kontratatzeke mugitu zela Maria Jesús.

Maria Jesús Azkuek esan du ez duela erantzun nahi.

Legalki ondo dagoen arren, ANVko zinegotziak jakin nahi dute zergatik egin diren gauzak horrela, zergaitik batzuei lagundu zaien baldintzak betetzeko eta beste batzuei ez.

Trapu Zarrak dendarekn egindako kontratuaz Jose Maria Markaidak esan du Maria Jesús Azkuek inposatu zuela zein jantzi egin eta ez daudel ados eskatutakoarekin.

Deitze Erkorekak eskatutakoa aktetan agertzea nahi du, hau da Maria Jesús Azkuen dimisioa. Era berean Deitze Erkorekak eta Jose Maria Markaidak esan dute eskatuko dutela Jesús Maria Fullaondoren dimisioa Maria Jesús Azkuen lanarekin bat etortzen bada. Jesús Maria Fullaondok esan du araudiari dagokionez ondo dagoela beste ikuspuntu batetik kritikagarri izan ahal den arren.

Deitze Erkorekak esan du probalekua erabiltzeko tasa dagoela baina, polikiroldegia erabili ahal izateko ez.

Jesús Maria Fullaondok esan du astertuko dela.

Deitze Erkorekak errepikatzen du eskatutakoa aktetan agertzea nahi duela, hau da Maria Jesús Azkuen dimisioa.

Lehen esanda dagoen moduan, 21:10 ean osoko bilkura amaitu da.